



Mendebaldeko estatuak Palestinarekiko agertzen ari diren elkartasuna nahi nuke Kurdistanentzat ere

Faruk Kiliç, irakasle kurdua

2015ean ezagutu nuen Faruk Kiliç (Erzurum, Turkiaren menpeko Kurdistan, 1976), Istanbulen egindako erasmusaldian. Kazeztaria nintzela esanda elkartu nintzen gizarte zientzietako irakasle kurdu honekin, eta hamar urtean disko gogor batean gordeta egongo zen elkarrizketa bat egin nion. Diyarbakırren –Amed, kurdueraz– (Turkiaren menpeko Kurdistan goiburua) puri-purian zegoen gerraz aritu zen bera; Katalunia-

ko prozesuak euskaldunongan sortutako espektatibez ni. “Autoritateari aurka egitea da nire bizi-filosofia”, zioen.

Auzo berean elkartu gara aurrean, inflazioaren eta turistifikazioaren atzaparrek ondo helduta daukaten hiriri so. Gauza batzuk aurreikusteko bezain ezkorrak ginen orduan ere, baina zenbait premoniziotan huts egin genuen.

Hau igarotako denborari egindako elkarrizketa bat da.

 NEREA IBARZABAL SALEGI

“Zaila da mundua hamar urte barru non egongo den imajinatzea”. Hori esanez amaitu zen duela hamar urteko gure grabazioa. Zer esaten dizu munduak gaur egun?

Azken hamar urteak haustura sakonen lekuko izan dira, bai Turkian, bai mundu mailan. Turkian botere politikoak eten-gabe estutu du hedabideen, botere judizialaren eta estatuko erakundearen gaineko kontrola, polarizazio sozialean sakonduz.

Erdoğan presidenteak ezarritako erregimen autoritarioa edozein kontrol demokratikotatik kanpo dago. Diyarbakırreko bonbardaketak eta ondorengo ISISen erasoak ezin dira jite autoritario horretatik aparte ulertu. Segurtasun politikak eta beldur kolektiboak modu estrategikoan baliatu dituzte erregimena sendotzeko.

Azken urteek ez dute eraldaketa itxaropentsurik ekarri, errealtate sozial ilunagoa eta zatituagoa baizik.

Norantz aldatu da Istanbul?

Hogeita sei urte inguru daramatzat hiri honetan bizitzen. Istanbul asko eman dit, oroitzapen ahaztezinak dauzkatzat, baina argi dago hiriko giro kultural eta politikoak nabarmen egin duela atzera.

Espazio publikoak, lehen bizi-bizirik, sistematikoki mugatu dituzte. Kanean mahaiak eta aulkiak debekatzearena, esaterako, ez zen esku-hartze fisiko hu-





AKPren egoitza, Fatih auzoan.

tsa izan; gaueko bizitza, giza-harremak eta energia kulturala murriztu ditu.

Istiklal etorbideko zinema aretoak eta liburu dendak –garai batean Istanbulgo memoria intelektualtzat jotzen zirenak– bata bestearen atzetik ixten ikusi ditut. Gehienbat gozo-dendek eta Ekialde Hurbileko turistentzako *souvenir* dendek ordezkatu dituzte.

Adierazpen eta protesta askatasuna ere izugarri murriztu da. Egun Istiklal etorbidean ez da onartzen gobernuarekin kritikoa den manifestaziorik. Protestarako eskubidea soilik talde islamista jakin batzuentzat eta futbolzale oldarkorrentzat gordeta dagoela dirudi.

Duela hamar urte ere Erdoğan buruz berbetan ari ginen, haren “sultan bihurtzeko nahia” aipatu zenidan. Aurtengo albistea da oposizioko alderdi nagusiaren (CHP) aurka egindako operazioa: ehunka atxilotu, tartean Istanbulgo alkatea.

Erdoğanek jada ez du nahi hauteskundeetan bera garaitzeko ahalmena duen eragile politikorik. Ekrem İmamoğlu-k –Istanbulgo alkatea–, zeinak

“ ”

Erdoğan presidenteak ezarritako erregimen autoritarioa edozein kontrol demokratikotatik kanpo dago

herritarren babes zabala eta lider izaera zeuzkan, mehatxu hori gorpuzten zuen. Erdoğanek Estatuaren boterea mugarik gabe erabili eta, hainbat aitzakia tarteko, İmamoğlu espetxera bidali zuen. Seguruenera ez dute luza-roan askatuko.

2002. eta 2013. urteen artean Erdoğanek babes sozial zabala zeukan. Ez zuen aukera alferrik galdu: komunikabideak neutralizatu, enpresa-eli-

teak kontrolpean jarri, eta meritokrazia ezabatu zuen estatu-erakundeetan. Azken urteetan ekonomiak okerrera egin duenez AKPri –Erdoğanen alderdia– kostatu egin zaio %30a gainditzea. Baldintza horietan soluzio miragarriak aurkezteko gaitasuna galdu du Erdoğanek. Oposizioa ito eta balizko arerioak neutralizatzeaz aparte, aukera gutxi geratzen dira.

Aldaketa aurreikus daiteke, orduan?

Bere antzerako besteren bat etorriko litzateke. Bi klabe nagusik eusten dute egun boterean. Batetik, kanpo babesak: NATOk eta, batez ere, AEBek Erdoğanen nazioarteko posizioa indartzen dute. Bestetik, estatuko ia instituzio guztiak bereganatzeko daukan gaitasunak herrialde barruko politikak nahieran maneiatzeko aukera ematen dio.

Guk elkar ezagutu eta hilabete gutxira izan zen estatu-kolpe saiakera. Hura ere bere aldeko tanto bilakatu zela uste duzu?

Bai. “Jainkoaren oparitzat” jo zuen. Larrialdi egoera ezarri, eta estatua berre-



gituretzeko baliatu zuen. Milaka purgatu egon ziren, komunikabideak isilarazi zituzten... Kolpea geldiarazi zuten, baina ez legea berrezartzeko, autoritarismo-rantz jotzeko baizik.

Erdoğan iritsi aurreko Turkia sekularragoa zen. Hezkuntzak eta ekonomiak behera egiten duten heinean, erlijioa hazi egiten da, eta alderantziz. Gobernua horren jakitun da, eta molde horretako gizartea bultzatzen du, komeni zaiolako.

Zuk irakaskuntza uztea erabaki zenuen.

Irakasleak oso kontrolatuta daude. Inspektore bat bidali zuten eskolara nitaz galdezka, gurasoren batek jarritako ke-xaren harira. Ikasle batek erlijioaren eta zientziaren arteko desberdintasuna zein den galdetu zidan, eta nik honela azaldu nion: batean sinestea aski da, besteak frogak behar ditu. Zerua jarri nien adibidetzat, fededunentzat existitzen dena, baina ez zientzialarientzat, ezin baita

frogatu. Nahikoa arrazoi izan zen ni zigortzeko; soldata jaitsi zidaten.

2017an Erdoğanek konstituzioa erreformatzeko erreferenduma irabazi, eta presidentetza luzatzeko eta botere exekutiboa bereganatzeko aukera izan zuen. Sistema parlamentariotik presidentzialera igaro zen Turkia.

Erreferendumaren prozesua bera ezau-garri antidemokratikoz josia egon zen.



Kulturarteko Plaza Feminista
Florida auzoa 28, Hernani

**AZAROAK
6-16**

Erresistentzia istorioen zinemaldia



[@hariakzinemaldia](https://www.facebook.com/hariakzinemaldia)

**Hernaniko
Udala**



“ ”

**Kurduerak
higadura azkarrari
eta desagertzeko
arriskuari egin behar
die aurre, ezinbestean**

“Ez”-aren aldeko kanpaina mugatu, eta estatuen baliabide guztiak jarri ziren “Bai”-aren alde. Gertaerarik gogorrena zigilurik gabeko 2,5 milioi boto-paper inguru baliotzat hartzea izan zen. Horrek zilegitasun elektorala erabat deuseztu zuen. Orduko oposizioko buruzagi nagusiak, ordea, ez zuen eragozpen larriarik jarri.

Deigarria da Turkiako oposizioak gizarteari ez eskaintzea bizitza zibilizatua goa, demokratikoagoa. Kasu batzuetan Erdoğan bera baino atzerakoiagoak dira. Bere akats eta guzti, baina gutxienez Erdoğanekin kurduen auziaz eztabaida

daiteke. Turkiako gizarteak eta oposizioak gogor kritikatu zuten kurduen bake prozesu bat abiatu izanagatik.

Hau ez genuen 2015ean sinetsiko. “Aro berrian” turkiarrek eta kurduak “adiskidetasunean elkar besarkatuko” dutela adierazi zuen Erdoğanek. Bake prozesu bat abian da. PKK-k borroka armatua behin betirako etetea erabaki du, preso dagoen Öcullan liderrak eskatuta. Zerk ahalbidetu du hau?

Horri erantzuteko, kontuan hartu behar dira kurduen ibilbide historikoa, azken mendean jasan dituzten tragediak, eta potentzia inperialistek “auzi kurdua” sortzeko eta sakontzeko izan duten rola. Iran, Irak, Siria eta Turkiaren politikak ere aztertu behar dira.

Turkiako Errepublikaren historian estatutak beti izan du harreman arazotsua kurduenkin. Ideologia ofizialak haien existentzia ukatu eta asimilazioa bultzatzeaz gain, bere legitimazioa eraiki du kurduen suntsiketaren kontura. Hezkuntza sistematik politikak ekonomikoetara, ingeniariaritzako sozialetik segurtasun estrategietara, dena ikuspegi horrekin diseinatu zen.

Denborarekin, ukazio eta gainbehera hori puntu batera iritsi zen, non elkarriketa osasuntsua izateko kapaz zen aktorerik ia ez zen geratzen. Denak –intelektualak, eskuindarrak, ezkertiarak, merkatariak, nekazariak, langileak– izan ziren kaltetuak. Kurduen belaunaldi berri ikasketadunengan ere nabaria zen antagonismo hori.

“ ”

**Errefuxiatuen truke
egindako kontzesioak
akats estrategikotzat
hartu behar dira.
Eragotzi nahi izan
zuten migrazio
gehiena berdin-berdin
iritsi zen Europara**

“ ”

XXI. mendea kurduen mendea izango da, edo itxaropen bat besterik ez da

Agian, blokeo hori ikusita, Erdoğanek eta Bahçelik –egun AKPrekin koalizio gobernua osatzen duen MHP alderdiko liderrak– beste "bake prozesu bat" hasi zuten, elkarrekiko mesfidantza guztiak gorabehera. Iraganeko porrotak porrot, elkarriketak izan behar du beti lehen-tasuneko bidea.

Gaur egungo Ekialde Hurbilean, heriotza eguneroko erritu bihurtu den honetan, bake prozesua babestea da jarrera gizatiarra eta politikoki sanoena.

Baikorra zara prozesu horri dagokionean?

Turkiaren historia politiko berrian ikusi dugu horrelako promesek sinbolikoak izaten segitzen dutela eta ez dutela erreforma zehatzik ekartzen. Politika, bere izaeragatik beragatik, kontraesanean eta interes absolutuen gainean eraikitzen da. Historiak erakusten digu ekialdeko gizar-teetako agintariak ez direla inoiz berdintasun zaleak izan. Pentsamendu makia-velikoa berezkoa dute erregimen horiek, eta, bitxia bada ere, herriak berak askotan ez du kontrakorik eskatzen; harremanak sultan-subjektu esparruan geratzen dira.

Nire iritzia da proiektu honetan nazioarteko eragileek parte hartzen badute, itxaropen apur bat sor daitekeela. Mendebaldeko estatuak Palestinarekiko agertzen ari diren elkartasuna nahi nuke Kurdistanentzat ere.

Egidazu berba zure Kurdistango haurtzaroaz.

Denboran atzera eraman nahi nauzu... Erzurumeko herri kurdu kontserbadore batean jaio nintzen, Turkia ekialdean. Familia handi bateko bosgarren haurra izan nintzen. Amak dioenez, ez nintzen ospitale batean jaio, gure etxe ukuiluan baizik, animalien artean. Nire arreba nagusia ohartu zen ama erditzeaz zegoela, eta berehala deitu zion herriko emagin bati. Pasadizo honek Jesusen jaiotza gogorarazten digu.

Nire haurtzaroa bizitza komunala eta balio tradizionalak nagusi ziren ingurunean garatu zen. Zazpi eta hamabi urte bitartean anaiak eta biok etxe-ko animaliak bazkatzen genituen. Natura-rekiko lotura sakona eraiki nuen, eta horrek erresilienteagoa eta obserbatzaileagoa egin nau, beharbada. Aitari laborantzan ere lagundu nion batxilergo urteak arte.

Nire aita autoritarioa zen, baina errespetatzen nuen figura bat. Gure arteko tentsio iturri nagusia ostiralak ziren: meskitara joan nendin nahi zuen, baina kontra egiten nion; herriaren kanpoaldean ibiltzen nintzen noraezean. Etxera itzultzean, errietari aurre egin behar! Gaztaroan ez nuen lortu Jainkoarekin harreman goxorik garatzerik, erlijioa urrun samar eta inposatutako zerbaite bezala sumatzen nuen beti.

Nerabetan Hınıs-eko YİBO barnetegi batera joan nintzen, gure herritik 50 kilometro ingurura. YİBO eskolek haur kurduak estatu turkiarraren ideologian barneratzea zuten helburu. Hamalau urterekin goizeko zeremonia militar batean *Dena aberriaren alde* leloa nahita gaizki ahoskatu nuenez, gure irakasleak –kurdu alevi batek– fisikoki zigortu gintuen lagun bat eta biok. Horren ostean, biok barnetegia utzi, eta etxe txiki bat alokatu genuen.

"Turkiak nire haurtzaroa txikitu zuen, nire hizkuntza hartu zuen, aita suntsitu zuen, eta ni ere hautsita nengoen". Mizgin Ronak idazle kurduaren berbak dira, aldizkari honetan argitaratuak. Zein izan da zure esperientzia hizkuntzarekin? Zer esan nahi du kurduerak zuretzat?

Nazio bat bere hizkuntzak egiten du, bere istorio, poz, nahigabe eta ondare kultural guztiak zentzua hartzen baitu hizkuntza-aren bidez. Niretzat kurduera ez da komunikatze tresna hutsa, baizik eta nire izatearen definizioa eta esanahia.

Mizgin Ronakek esandakoak ia kurdu guztiek bizi izan duten hauskortasun partekatua adierazten du. Kurduerak, bereziki Turkiaren barruko Kurdistango zatian, asimilazio sistematikoa jasan du, eta hizkuntza sistematik at dagoenez gero, higidura azkarrari eta desagertzeko arriskuari egin behar die aurre, ezinbestean.

Eremu geopolitikoan Turkiak bere eragina handitu du, dela Ukrainaren eta Errusiaren artean bitartekari gisara, dela Europako Batasunarekin errefuxiatuen inguruko akordioak sinatuta. Errusiaren eta Europaren soka gainean ekilibristarena egitea dagokio?

Erdoğanen menpean Turkiak interes absolutuetan eraikitako atzerri politika

“ ”

**Bake prozesua
babea da jarrera
gizatiarra eta
politikoki sanoena**



urriak 23 - azaroak 13

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren %25 zonaldeko euskalgintzari

errigora.eus



Turistentzako gozo-denda, Istiklal etorbidean.

egiten du. Politika horrek, botere hegemonikoen aurkako ekintza orekatzaile gisa aurkezten badute ere, ez du ongizate nazional iraunkorrik sortzen; bere erregimenaren jarraipena ziurtatzeko balio du, batez ere.

Europako Batasunak Erdoğanen errefuxiatuen truke egindako kontzesioak akats estrategikotzat hartu behar dira. Eragotzi nahi izan zuten migrazio gehiena berdin-berdin iritsi zen Europara.

2023an Gaziantep eta inguruak astindu zituen lurrikararen ondorioz 40.000 pertsonatik gora hil ziren. Zuk senideak galdu zenituen.

Tragedia handia izan zen. Arduragabekeriarekin, ezjakintasunarekin, errenta-

garritasunarekin, engainuarekin –azken batean, gobernu ikaragarri baten existentziarekin– bat zetorren tragedia.

Hildakoen kopuru ofiziala, gutxienez, benetakoa baino lauzpabost aldiz txikiagoa izan zen. Eta ikasgairik atera al zen? Tamalez, ez. Estatu hau eta gizartea bera prestatu gabe daude hurrengo lurrikararako.

Demagun 2035a dela, eta kafetegi honetan gaudela berriro. Zer berri dakarzu?

Mundua norabide bitxian doa. Zientzian ingeniariatza genetikoak eta adimen artifizialak hurrengo hamarkada markatuko dutela dirudi. Ekialde Hurbileko mapak alda daitezke.

“ ”

Iraganeko porrotak porrot, elkarrizketak izan behar du beti lehentasunezko bidea

XX. mendean kurduak galtzaile handien artean egon ziren. Orain, baina, koiunturak mesede egiten digula dirudi. Agian XXI. mendea kurduen mendea izango da, edo itxaropen bat besterik ez da. ●

